



Lotsa

1 Begiratu Emoziotegiko 38-39. orrialdeetako irudiari, eta erantzun galderei.

● Zer gertatzen zaio biluzik dagoen arditxoari?

● Nola nabari da zer sentitzen duen?

2 Zer pentsatzen dute irudi horretako ardiek? Idatzi.



Two large blue thought bubbles with horizontal lines for writing. The top bubble is connected to the bird image above it, and the bottom bubble is connected to the bird image below it.



3

Irakurri Emoziotegiko 38. orrialdeko testua, eta erantzun galderei.

● Nola agertzen da lotsa?

● Nola nabari dute besteek lotsatuta zaudela?

● Lotsa beti arrazoi berberengatik agertzen da? Zer arrazoi dira?

4

Testuaren arabera, **lotsa** ez da **zuhurra**. Zer esan nahi du horrek? Markatu.

Ez duela agertzea saihesten; ez duela sekreturik ezkututzen.

Ezin dela erraz bakartu.

Ez dituela kontuan hartzen gainerakoen iritziak.

● Zer hitzek du **zuhur** hitzaren kontrako esanahia? Idatzi.

● Idatzi hitz hauen kontrako esanahia duten hitzak.

lotsatia → _____

asebetea → _____

arretatsua → _____

5 Idatzi definizio bakoitzaren ondoan **lotsaren** familiarik dagokion hitza.

lotsa> lotsagarri lotsatu lotsagabe

- Lotsa eragiten duena → _____
- Pertsona mutiri eta apaltasunik gabea →

- Lotsa eragin edo sentitu → _____

6 Irakurri **mania** hitzaren definizioak, eta idatzi esaldi bakoitzaren ondoan esaldi horri dagokion definizioaren zenbakia.

mania.

1. Obsesio bat edo ideia finko bat eragiten duen buru-nahasmendua.
2. Portaera-modu baten joera ohiz kanpoko edota nabarmena.

- Nire lehengusinak hanka bakarraren gainean ibiltzeko mania du.
- Mania duten gaixoak ez dira ohartzen gaixotasun hori dutela.
- Zentzu horietako zeinekin uste duzu erabili dela Emoziotegiko 38. orrialdean?

7 Kopiatu testuan **auzo-lotsa** zer den azaltzen duen esaldia.

8 Galdetu hiru pertsonari zerk sentiarazten dien **lotsa** eta zer egiten duten hori konpontzeko. Idatzi.

9 Pentsatu noiz sentitu zenuen azkenekoz **lotsa**. Zergatik sentitu zenuen? Zer pentsatu zenuen?

● Uste duzu lotsa sentituko zenukeela beste zerbait pentsatu izan bazenu?

10

Zer egiten duzu **lotsa** sentitzen duzunean? Azaldu

11

Irakurri Tsalo planetako ohiturak. Gero, marraztu herrialde horretako egoera lotsagarri bat.

Tsalo planetan ere sentitzen dugu lotsa..., baina ez Lurrean sentitzen duzuen arrazoi berberengatik. Guri lotsa ematen digu jendeak burua ez estaltzeak edo hanka baten gainean ez ibiltzeak. Lotsa sentitzen dugunean, kolore berde batek hartzen digu aurpegi osoa, eta ahoa asko irekitzen dugu...



Lotsa

OHARRAK

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html.